

ESKOLA KIROLA- ESKUBALOI ARAUDIA 2022-2023

	BENJAMINAK LH3-4	ALEBINAK LH5-6
JOKALARI KOPURUA	4 + atezaina	5 + atezaina
ALDAKETAK	Aldaketak atsedendietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko.	
JOKA DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK	Gehien eta gutxien jokatu duten jokalarien artean, gehienez zati baten alde egon daiteke, (luzapenak barne). <i>Adibidez, taldekideren batek 4 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 3 zati jokatu behar dituzte.</i>	
ATEZAINAK	Gehienez 2 zati joka ditzake atezain gisa. <i>(4 zatiak joka ditzake, baina 2 atezain eta 2 jokalaria moduan izan behar du, eta gogoratu kasu honetan, beste taldekide guztiek 3 zati jokatu beharko dituztela).</i>	
IRAUPENA	10 minutuko 4 zati. (4 x 10)	
ATSEDENALDIAK	3 minutukoak	
PARTIDUKO AZKEN EMAITZA	Lehen bi zatietan gol gehien sartu dituen taldeari puntu bat emango zaio edo berdinketa egon bada, ez da punturik emango. Azken bi zatietan gol gehien sartu dituen taldeari puntu bat emango zaio edo berdinketa egon bada, ez da punturik emango. Beraz azken emaitza posibleak, honako hauek izango dira: 0-0 / 1-0 / 0-1 / 1-1 / 2-0 / 0-2	Partidu amaierako golen arabera.
DEFENTSA	Onartutako defentsak irekiak (2:2) eta banakakoak izango dira. Ezin da defentsa misto eta itxirik (4:0 / 3:1) egin. Defentsa norberaren zelaian bakarrik onartuko da eta BULTZATZEA debekatua dago.	Onartutako defentsak irekiak (3:2 / 2:3) eta banakakoak izango dira. Ezin da defentsa misto eta itxirik (5:0 / 4:1) egin. Defentsa norberaren zelaian bakarrik onartuko da eta BULTZATZEA debekatua dago.
ZIGORRAK	Epaileak hala baderitzo, minutu bateko kanporaketa agindu dezake. Adibidez BULTZATZEN bada. Defentsa itxia egiten duten taldeari, aurrenekoan abisua emango dio epaileak, bigarren abisuan, penaltia ahalbidetuko zaio aurkako taldeari eta baloi jabetza.	
TXAPELKETA MODUA	Ez dago txapelketarik	Txapelketako irabazlea, liga modura erabakiko da.